

## Ohiko galderak

### *Zer behar dut parte hartu ahal izateko?*

Eskabidea egiteko, honako ziurtagirietako bat behar da:

- a. Ziurtagiri elektronikoa (NAN elektronikoa edo ziurtagiri digitala)
- b. Cl@ve egiaztagiria, Estatuko Administrazio Orokorrarena
- c. EDUCAko erabiltzailea

### *Nork parte hartu behar du derrigor?*

Derrigor parte hartu behar dute 3 modalitate hauetako batean daudenek:

#### **Derrigorrezko parte-hartzea:**

Irakasle funtzionario hauek:

- Osasun arrazoiengatik zerbitzu eginkizunak eman dizkieten eta esleipen-ekitaldian lanpostua hautatu behar duten irakasleak.
- Irakastordu nahikorik ez izateagatik ikastetxez aldarazitako irakasleak eta lanpostua ezabatu dieten irakasleak, hurrengo ikasturterako destinoa aukeratu behar dutenak.
- Behin-behineko destinoa duten irakasle funtzionarioak.
- Praktiketako funtzionarioak.
- Jarduneko zerbitzura itzultzea eskatu duten irakasleak.

#### **Prestakuntzarako zerbitzu bereziak:**

Prestakuntzarako zerbitzu berezietan dauden lanpostuak bete nahi dituzten izangaiak.

#### **Derrigorrezko parte-hartzea beste zerrenda batekoak izanik:**

Behin-behineko eta praktiketako funtzionarioak, deitutako irakasle guztiendako aski lanposturik ez duten espezialitateetakoak. Beharturik daude parte hartzera, beren espezialitateaz gainera, antzekotzat jotzen den beste espezialitate batean.

### *Zer gertatzen da parte hartzera behartuta banago eta ez badut eskaerarik bidaltzen?*

Deituriko funtzionarioek **derrigorrez parte hartu** behar badute eta ez badute parte hartzen, ofizioz esleituko zaie destinoa beren espezialitatean esleitu gabe gelditzen diren lanpostuen artean, behin lanpostuen esleipen telematikoa bukatutakoan. Beren espezialitatean ez badago esleitu gabeko lanposturik, destinoa beste espezialitate batean esleituko zaie, baldin espezialitate hori badute edo irakats badezakete.

**Prestakuntzako zerbitzu berezietara** deitutako funtzionarioak, parte hartzen ez badute, prestakuntzarako zerbitzu berezietako zerrendatik kanpo geldituko dira, salbu eta deialdian jasotako kasuren batean badaude eta deialdian ezarritako epean egiaztatzen badute.

Deituriko funtzionarioek **derrigorrez parte-hartu** behar badute **beste zerrenda batekoak izanik** eta ez badute lanpostu-eskaerarik bidaltzen, behin lanpostuen esleipen telematikoa bukatutakoan, ofizioz esleituko zaie destinoa hutsik gelditzen diren lanpostuen artean, izan beren espezialitatean nahiz deitu duten antzeko espezialitatean.

### ***Prestakuntzarako zerbitzu berezietako izangaia naiz. Zein lanpostu hautatu behar ditut?***

Prestakuntzarako zerbitzu berezietako izangaiek derrigorrezko lanpostu guztiak hautatu beharko dituzte eta, berariazko eskakizun bat egiaztatua badute, eskakizun hori duten lanpostuak.

Hala egiten ez badute, lanposturik esleitzen ez bazaie, prestakuntzarako zerbitzu berezien zerrendetatik baztertuak geldituko dira, baldin eta egoera hauetakoren bat gertatzen bada:

- Esleitu gabeko derrigorrezko lanposturik gelditzen bada
- Zerrendan beherago dauden beste izangai batzuei derrigorrezko lanpostuak esleitu bazaizkie.
- Izangaiak berariazko eskakizunen bat egiaztatua badu eta eskakizun horretako lanpostuak esleitu gabe gelditu badira edo zerrendan beherago dauden izangaiei esleitu bazaizkie.

Zerrendatik kanpo ez gelditzeko, izangaiak justifikatu beharko du deialdian jasotako kasuren batean dagoela eta deialdian ezarritako epean frogatu beharko du.

Izangaiek onartuak izan diren espezialitate eta hizkuntza guztietako zerrendetan jarraituko dute, horietako edozeinetan destinoa esleitzen bazaie.

### ***Nork hartzen du parte borondatez?***

Zerbitzu-eginkizunetan diharduten funtzionarioak, izan semea edo alaba zaintzeagatik, izan aparteko gorabeherengatik.

Zerbitzu-eginkizunetako bat esleituta duen irakasleak ez badu lanpostuen esleipen telematikoan parte hartzen, edo hautaturiko lanpostuetako bakar bat ere ez bada esleitzen, behin betiko destinoan jarraituko du, eta emandako zerbitzu-eginkizunari uko egiten diola ulertuko da.

### ***Zerbitzu-eginkizunetan aritzeko baimena dut. Parte hartu beharra dut irakasle funtzionarioen lanpostuen esleipen telematikoan (ATPF)?***

Zerbitzu-eginkizuna ikastetxe jakin batean eman zaien funtzionarioak ez daude deituak esleipen telematikoko ekitaldi horretara. Ikastetxe jakin bati emandako zerbitzu-eginkizunen zerrenda Hezkuntza Departamentuaren webgunean argitaratzen da. Interesa duten langileek zerrenda kontsultatu beharko dute zerbitzu-eginkizunak emanak dauzkatela berresteko.

Hala ere, zerbitzu-eginkizunak ematea proposatu zaien funtzionarioek baldin eta destinoa jendaurreko ekitaldian hautatu behar badute, jendaurreko ekitaldira deitutakoen artean egon beharko dute. Adibidez: seme-alabak zaintzeko zerbitzu-eginkizunak, osasun-arrazoiengatiko zerbitzu-eginkizun batzuk, eta abar.

### ***Zenbat lanpostu hautatu behar ditut?***

Deituriko espezialitateko zerrendan zer postutan dagoen, horrenbeste lanpostu hautatu beharko du deituriko langileak. Derrigorrez parte hartu behar duten langileek zerrendan duten postu hori bezainbeste lanpostu edo gehiago hautatu ezean, aplikazioak ez die utziko eskaera bidaltzen.

Espezialitate batean baino gehiagotan deitua izanez gero, nahikoa da espezialitate batean betetzea baldintza hori, beste zerrenda batetik nahitaez parte hartu behar duten izangaien kasuan izan ezik.

Oposizioa gainditu duten espezialitatean behar adina lanpostu ez izategatik antzeko espezialitateetan deituriko izangaiek beren espezialitateko zerrendan zein postutan dauden, horrenbeste lanpostu hautatu beharko dituzte, eta antzeko espezialitatean nahi adina lanpostu gehitu ahal izanen dituzte. Oposizioa gainditu zuten espezialitateko zerrendan derrigorrezko lanpostuen kopurua zerrendan duten postu-zenbakia baino txikiagoa bada, eskabideari gehitu beharko dizkiote zerrenda horretan betetzen duten postu hori bezainbeste lanpostu, antzeko espezialitatekoak, eta oposizioa gainditu zuten espezialitateko nahitaezko lanpostu guztiak.

### ***Nire espezialitatean lanpostu huts nahikorik ez dagoelako antzeko espezialitateko zerrendan nahitaez parte hartu behar izanez gero, zein ordenatan hauta ditzaket plazak?***

Kasu horretan, espezialitateko plazak eta antzeko espezialitateko plazak parte-hartzailearen nahiaren arabera ordenatzen ahalko dira, kontuan hartuta ez dela antzeko espezialitateko plazarik esleituko oraindik nahitaez esleitu beharreko plazak gelditzen badira parte-hartzailearen espezialitatean.

### ***Zer lanpostu hauta dezaket?***

Kidego, espezialitate eta hizkuntza bakoitzean, edo parekatutako lanpostuan, deituak izan diren funtzionarioek destinoa aukeratu beharko dute beren espezialitatean eta hizkuntzan, edo parekatutako lanpostuan, eskainitako premien artean (ordutegia beste espezialitate batekin osatzen duten lanpostuak barne). Bestalde, beren espezialitate eta hizkuntzan berariazko eskakizunarekin eskaintzen diren lanpostuak ere hautatzen ahalko dituzte, baldin eta haietarako egiaztapena badute. Kontuan hartu behar da atzerriko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuen kasuan, hizkuntza-eskakizun hori duten irakasle-lanpostuetarako izendatutako funtzionarioen atzetik hautatuko dutela.

Behin-behineko eta praktiketako funtzionarioek Kidegoan sartzeko hautapen prozesua zein espezialitate eta hizkuntzan gainditu zuten, espezialitate eta hizkuntza horretako lanpostu hutsak hautatu beharko dituzte.

Bestalde, beren lehen behin betiko destinoa lortu ez duten behin-behineko funtzionarioek eta praktiketako funtzionarioek beren oposizioko espezialitatean eta hizkuntzan, edo parekatutako lanpostuan, aukeratuko dute destinoa, edo, halakorik ez bada, kidego bereko edo beste irakasle

kidego batzuetako antzeko espezialitateetan, betiere errespetatuz funtzionarioek behar den espezialitatean eta hizkuntzan duten lehenetasuna.

***Atzerriko hizkuntza-eskakizuneko lanpostuetarako izendatutako funtzionarioa naiz. Zer plaza hauta dezaket?***

Atzerriko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetarako izendatutako irakasle funtzionarioek dagokien atzerriko hizkuntzako profila duten plazak bakarrik aukera ditzakete.

***Zein dira derrigorrezko eta borondatezko lanpostuak?***

Derrigorrezko lanpostutzat joko dira lanaldi osoko premia guztiak, salbu eta berariazko eskakizunak, ibiltaritza, trebetasun teknikoak edo instrumentalak dituztenak eta espetxeakoak.

Horren ondorioz, borondatezko lanpostuak honako hauek dira: lanaldi partzialeko premiak, berariazko eskakizuna duten premiak, ibiltaritza duten premiak, espetxeako premiak eta gaitasun instrumentalak edo teknikoak beharrezkoak dituzten premiak.

Gainera, kontuan izan behar da, nolana ere, atzerriko hizkuntza-eskakizuna duten plazak derrigorrezkoak direla hizkuntza-eskakizun hori duten lanpostuetarako izendatutako funtzionarioentzat eta prestakuntzarako zerbitzu berezietako langileentzat.

***Lanaldi partzialak aukeratzeko ahal ditut?***

Bai. Karrerako funtzionarioek lanaldi partzialetako irakastorduak dauzkaten lanpostuak hautatzen ahalko dituzte.

Honako hauek dira lanaldi partzialeko lanpostuen ordu zehatzak, murrizketaren arabera aukera daitezkeenak:

LEHEN HEZKUNTZA																
	Lanaldi-murrizketa								Irakastorduen murrizketak adinagatik							
Murrizketa	2/3	1/2	% 45	2/5	1/3	1/4	1/6	1/8	>55 Lehen Hezketa eta Espez	>55 Haur Hezkuntza	>56 Haur Hezkuntza	>56 Lehen Hezketa eta Espez	>57 Haur Hezkuntza	>57 Lehen Hezketa eta Espez	>58	
Lanaldia (orduak)	9	13	14	15	16	18	21	22	24	23	22	23	21	22	18	

BIGARREN HEZKUNTZA / ERDI MAILAKO IRAKASKUNTZA												
	Lanaldi-murrizketa								Irakastorduen murrizketak adinagatik			
Murrizketa	2/3	1/2	% 45	2/5	1/3	1/4	1/6	1/8	>55	>56	>57	>58
Lanaldia (orduak)	6	9	10	11	12	13	15	16	17	16	15	12

Adinagatik irakastorduak murrizteko eskubidea duten funtzionarioek aukera izanen dute, orobat, dagokien murrizketa baino txikiagoa duten lanpostuak hartzeko. Lanpostu horietako bat esleituz gero, irakasleak ezin izanen du esleitutako lanpostuari dagokion irakastordu-murrizketa baino murrizketa handiagorik hartu.

*Adibidea: 58 urtetik gorako maisu edo maistra batek 18 orduko premiak hartzen ahal ditu, 7 irakastorduko murrizketa dagokiola. 19, 20, 21, 22, 23 eta 24 orduko premiak ere betetzeko aukera emanen zaio, baina lanpostu horietako bat esleitzen bazaio, ezin izanen du esleituriko premiari dagokion murrizketa baino murrizketa handiagorik eskatu.*

### ***Praktiketako funtzionarioa naiz, lanaldi partzialak ere aukera ditzaket?***

Praktiketako funtzionarioek irakastorduak honela murriztuta dauzkaten premiak hauta ditzakete: 1/2, % 45, 2/5, 1/3, 1/4, 1/6 eta 1/8. Aurreko ataleko tauletan ageri da lanaldi murrizketei zenbat ordu dagozkien kidego bakoitzean. Lanaldi murrizketa daukan lanpostu bat esleitzeak praktikaldiaren epea aldatzea ekarriko du, horretarako onetsitako ebazpenean ezarritakoaren arabera.

### ***Zer gertatzen da lanaldi partzialeko lanpostu bat esleitzen bazait?***

Lanaldi partzialeko lanpostu bat esleitzeak automatikoki ekarriko du lanaldia murrizteko eskaera interes partikularragatik. Interesdunak murrizketa eskatu nahi badu araudian aipatzen ez diren arrazoiengatik (27/2022 Foru Dekretua, apirilaren 4koa), 3 egun balioduneko epean eskatu beharko du, destinoen esleipena argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Lanaldi partzialeko lanpostu bat esleitu zaion parte-hartzaileari adinaren arabera ordu murrizketa badagokio, automatikoki aplikatuko zaio murrizketa. Interesdunak apirilaren 4ko 27/2022 Foru Dekretuan jasotako lanaldi-murrizketa bat eskatu nahi badu, 3 egun balioduneko epean eskatu beharko du, destinoen esleipena argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita. Adinagatik eskola-orduen murrizketa eta lanaldi-murrizketa ezin dira metatu.

### ***Nola esleitzen dira atzerriko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak?***

Atzerriko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan izendatu diren irakasle funtzionarioek eskakizun hori duten lanpostuak bakarrik eskuratzen ahal dituzte, eta lehentasuna izanen dute lanpostu horiek betetzeko.

Irakasle funtzionarioek atzerriko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak aukeratuko dituzte, hurrenkera honen arabera:

- 1.) Atzerriko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan izendatutako irakasle funtzionarioak.
- 2.) PI, PF edo PALE hizkuntza-eskakizuna egiaztatua duten irakasle funtzionarioak.

Bi talde horietako bakoitzean, deituriko irakasleak hurrenkera honetan joanen dira:

- a) Zerbitzu-eginkizunak osasun arrazoiengatik.
- b) Ikastetxez aldarazitako irakasleak, irakastordu nahikorik ez zegoelako edo lanpostua ezabatu delako.
- c) Behin-behineko destinoa duten irakasleak.
- d) Zerbitzu-eginkizunak semea edo alaba zaintzeagatik edo salbuespeneko gorabeherengatik.
- e) Praktiketako funtzionarioak.
- f) Jarduneko zerbitzura itzuli direnak.
- g) Prestakuntzarako zerbitzu bereziak.

Era berean, espezialitateren batean beste espezialitate batetik datozen irakasleak badaude, beren espezialitateetan lanpostu huts nahikorik ez dagoelako (beste zerrenda batean izanik derrigorrez parte hartu behar duten langileak), deituriko irakasle horiek lehen ezarritako irizpideen araberrako ordenan joanen dira, baina betiere espezialitateko irakasle titularren atzetik.

### ***Deuseztatzen ahal dut jada aurkeztu dudana eskaera bat?***

Parte hartzeko aldirian, deialdirian aurkeztutako eskaera deuseztatu daiteke. Gogoan izan ezen, eskaera deuseztatzen baduzu, ez dela kontuan hartuko deialdiria ebatzeko orduan.

Aurkezturiko eskaerak bakarrik deusezta daitezke. Horretarako, sakatu eskaera (aurkeztua) eta goiko aldean "Deuseztatu eskaera" botoia agertuko da.

### ***Aldatzen ahal dut jada aurkeztu dudana eskaera bat?***

Ez dago aldatzerik jada aurkeztu den eskaera bat, baina eskaera kopia daiteke. Eskaera kopiatzean zirriborro bat sortzen da, eta hori aldatu eta aurkeztu daiteke aurretik aurkeztutako eskaera deuseztatzeko.

Parte hartzeko eskaera bat baino gehiago aurkeztuz gero, epearen barranean aurkezten den azkeneko eskaera baizik ez da tramitatuko, eta horrek bakarrik balioko du.

### ***Zenbat eskaera aurkez ditzaket?***

Aplikazio telematikoak gehienez ere 10 eskaera onartuko ditu.

### ***Non ikus ditzaket nire eskaerak?***

Parte hartzeko aldiak dirauen bitartean, eskaerak kontsultatu (eta deskargatu) ahal izanen dituzu. Parte hartzeko epealdia bukatutakoan, eskaera guztien historia kontsultatzen ahalko duzu zure herritarren karpeta bidez edo Nafarroako Gobernuaren erregistro orokor elektronikotik (azken horretatik deskargatzeko aukera ere izanen duzu).

### ***Nola jakin dezaket lanpostu bat esleitu ote didaten?***

Ebatzitako deialdietako "Esleipenak" erlaitzean begiratu behar duzu.